

EUSKERAZALEAK

NENBILLAN ETA BA-NABIL

Bilbo'ko Udaletxetik bialdu euskuezan orriak, izen eta etxean doguzan zerak jakin-azo dagitseguezan, ez dakit egin ebazanak berak nai eban lez egiñak ziran ala besteren baten aginduetatik egiñak. Eta ba-neukan ori jakiteko gogo, barri orren billa nenbilan eta nabil orain be.

* * *

Batek esan eustanez, goardizibilla; beste batek oster, Bermeo'n, Ondarru'n, Motriku'n edo or nunbaiten izan dan karabiñeru zarren bat izango dala, lanaz kitututa, zar-sarituta dagoanen bat.

* * *

Bata naiz bestea izan, berarentzat izan diran lan eta nekeak ondo eroanik, euskera be polito ikasirik ara non dogun Udaletxean, nasai esarrita euskerea loratuten.

Arian-arian jarraituz, eta orain-artekora itzulirik euskerearentzako laukiak bete dabezenak zenbat izan ete dira? Ni neu ez, ni ez naz izan, euskera jatorrez egindako itzik ezin aurkitu izan dot eta.

* * *

Itsasaldeko ur-txoriak dagozen eginbearretan bakean lagarik, goazen orain euskal-arrotz itzezko mordoillokerira: Estatistika Instituto Nazionala, probintzia, agentea, pertsonalak, sekreto; erreferentzia, posta, edifizioa, familia, inskribitutako organismo edo enpresak, komunik, korridore, galeria, altak eta bajak; kategoria profesionala, bulegoa, tuberia, finkatuskooa...

* * *

Batua, batua eta batu-zaleak! Izen bakoitzak, euskeratu ezker, dagokion itza dau.

LANDAJUELA'tar A'k.

GOIZ-ARG I

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...